

Semantic Systemsek lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du Matia Fundazioarekin, SIGECA laguntza-zentroen kudeaketa-sistema merkaturatzeko.

- Edozein laguntza-zerbitzu mota eta maila kudeatzeko irtenbide informatiko berritzailea.

Bilbo, 2020ko uztailaren 1a. Semantic Systemsek, IKT sektoreko konpainiak eta industria-enpresentzako irtenbide teknologikoen hornitzaile orokorrak, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du Matia Fundazioarekin, laguntza-zentroen kudeaketa-sistema (SIGECA) merkaturatzeko.

Irtenbide informatiko aitzindaria da, edozein motatako laguntza-zerbitzuen kudeaketa errazten duena (egoitza-zerbitzuak, eguneko zentroak, desgaitasuna, etab.), edozein mailatan. Era berean, Sigecak erantzuna ematen dio asistentziaren sektorean kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko beharri, eta asistentziaren kalitate gorena eskaintzen du, baliabideen kudeaketa eraginkor eta efizientearekin batera. Biak dira sektore soziosanitarioko erakundeen eta profesionalen erronka garrantzitsuenak.

Sigecak pertsonarengan zentratutako arretaren printzipioak jasotzen ditu. Arreta-eredu horrek pertsonaren autonomia eta duintasuna sustatzen ditu eta pertsonari modu pertsonalizatuan laguntzea ahalbidetzen du.

Sigeca 'hodeitik' dago eskuragarri eta malgua da; beraz, egunerokotasunean, kasu zehatz bakoitzean, sortzen diren beharretara egokitzeko aukera ematen du.

Semantic Systemsek, orain, online laguntza-sistema aitzindari hori izateko aukera eskainiko die hala eskatzen duten ikastetxeei.

Matia Fundazioari buruz

Matia Fundazioak 1881ean ekin zion bere ibilbideari, Jose Matia Calvo, Laudion jaiotako euskal ontzi-ustiatzaile eta merkatariak bere ondasunak utzi zituenean, fundazio bat sortzeko. Fundazio horren helburua honako hau zen: *" Adinekoei edo lanerako erabat ezinduei laguntzea, bere bizitzako egunetan bizirik irautea eta seguru aurkitzea, eta bere gaixotasunetan arreta ematea".*

Matia Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatu bat da, interes orokorreko deklaratu, eta 130 urte baino gehiagoko esperientzia du Gipuzkoan zerbitzu soziosanitarioak ematen. Patronatua hainbat lanbide-eremutako 13 pertsona nabarmenek osatzen dute, eta modu independentean eta borondatez parte hartzen dute haren gobernantzan.

Gizarteari ekarpena egiteko bokazio argiarekin, Matia Fundazioan ezagutza eta berrikuntza bilatu, garatu eta etengabe aplikatzea nabarmena da, bai eta gizartean zabaltzea ere (I+G+b), Matia Institutuaren bidez, 2003tik martxan dagoena.

Xedea honako hau da: "pertsonei zahartze-prozesuan laguntzea, haien ongizatea hobetzeko, haien autonomia eta duintasuna sustatzen duten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortuz". Hori dela eta, hainbat laguntza-mailatan ematen ditu zerbitzuak, bai osasunaren arloan, bai gizarte-zerbitzuetan eta desgaitasunean, zainketen jarraitutasuna bermatuz eta pertsonarengan zentratutako eredu integral batekin.

Semantic Systems-i buruz

IKT sektoreko Semantic Systems konpainia, soluzio teknologikoen hornitzaile globala, industria-enpresei Eraldaketa Digitaleko prozesuetan laguntzen diena, balio-kateko funtsezko prozesu guztietan soluzio digitalak aztertuz, optimizatuz eta ezarriz.

Semantic Systems enpresak zerbitzu hauekin laguntzen die enpresei: eraldaketa Digitaleko Aholkularitza, Cloud Computing, OT/IT Komunikazioak eta Zibersegurtasuna, Outsourcing IT, Enpresa-negozioko prozesuak (ERP/CRM), Gemelo Digital Industria 4.0, Erabakiak hartzeko laguntza (Business Intelligence, Adimen Artifiziala, ...).